


Hizkuntzaren Industria eta Lengoiaren Ingeniaritza

Eusko Jaurlaritzaren "2001-2004 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana"-ren barruan hizkuntzaren industriaren gaineko lerro estrategikoa zehazteko zenbait bilera egin izan dira azkenaldian. Lerro estrategiko hori bera Madrileko Zientzia eta Teknologia Planean ere txertatzea proposatuko du Eusko Jaurlaritzak. Egitasmo horren arduradunak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Industria Sailsa eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailsa dira. Aipatutako bilera horietan planaren arduradunak gain sektore horretako aditu eta enpresen partaidetza zabala izan dira eta egoeraren diagnostiko zorrotza eta hurrengo txostena egin da: 'INFORMAZIOAREN GIZARTEA Area sektorialerako 'Hizkuntzaren Industria' delako Ekimen Proposamena'.



Aipatu txostenean hainbat gogoeta bildu dira. Adibidez, ekintza berezi honen xedea, hizkuntz industriaren garrantzia, Europar programekin eta hainbat estatutako plangintza nazionalekin dagoen lotura, EAEn hizkuntzaren industria eta lengoiaren ingeniariatzako teknologi ekintza eta garapenik adierazgarrienak... Txostenean zehaztu izan diren ildoak aldatu ditugu hona.

Proposaturiko ekintza-ildoak

Ekintza-ildo bakoitzak helburu argi eta kontrolagarriak izatea bilatu da, baina, aldi berean, serie koherentea osatzen dute oinarriko teknologiaren garapen eta aplikazioaren ikuspuntutik.

- Hizkuntzaren ingeniariatzaren oinarriko tekniken garapena. Honen helburua da lengoia prozesatzeari lotutako teknikak, ikaskuntza eta autoikaskuntzako teknologiak, esanahia errepresentatzeko lanabes eta sistemak, eta seinale akustikoak prozesatzeko eta parametriazio fonetikorako teknologiaren garapenari bultzada ematea.
- Hizkuntza-baliabideen garapena. Azpiegitura baten sorrera bultzatzea izango da helburua, ondorengo esparuekin loturiko industriaren garapen eta indartze lehiakorra gauzatzeko: lexikoak, testu eta ahots erako corpusak, hiztegi elektroniko eleanitzak, terminologi datu-bankuak, eredu semantikoak, eta analizatzaile morfologiko eta gramatikalak.

- Lanabes aurreratu eta plataforma trebatzaileen erabilera bultzatzea. Honako atalak sustatuko dira, batik bat: testuinguru eleanitzetan eraginkor direla frogatu duten lanabes eta plataforma trebatzaileen bench-marking azterketa egitea; lanabes horiek espainiar estatuko testuinguru eleanitzera egiaztatzeke esperientziak; lanabes eta plataforma horietarako "plug-in" aplikazioak garatzea.
- Informazioaren bilketa, berreskurapena eta bilaketa. Informazioa analizatu, hautatu eta transferitzeko lanabesak dira ekintza ildo-honen asmoak. Horien artean ageri dira testuak, ahotsa eta meta-informazioa bilatu, laburtu eta aurkezteko agenteak, batetik, eta gestio dokumentala eta ezagupen eleanitzaren gestioa, OCR eta lematizatzaileak, berriz, bestetik.
- Hizketa automatikoki ezagutzea, hizketaren ulermen digitala eta testua hizketa bihurtzea. Alegia, era honetako aplikazioei euskarria eskaintzea: Hizkuntza-arteke (Gaztelania, Euskara, Galiziera, Katalanera) informazioaren gestioa; ahots azpiegiturak, mezularitza, ahots eta datuen integrazioa, telefonia finko eta mugikorrekoreko soluzioak; eta, posta elektronikoa ahots bihurtzea eta alderantziz.
- Ofimatikan eta testutik testurako bihurtetan (itzulpenean) testu-tratamenduaren euskarriaren funtzionaltasuna. Ekintza-ildo honek ondorengo bultzatuko du: "plug-in" software aplikazioak garatzea; itzulpenerako oinarriak eta akatsen zuzenketa automatikorako sistemak aplikazio komertzialen elementu osagarri gisa garatzea, hau da, agerien itzulpen automatikoa ohiko testu-prozesatzaileen bitartez, eta posta elektronikoen itzultzaileak.

Neurri osagarrien proposamenak

Zenbait neurri osagarri ere sartu da, Hizkuntzaren Industriari modu eraginkorrean lagunduko zaiola ziurtatzeko, erronka jakin batzuen aurrean. Neurri horien artean ageri dira orain arteko ekimenak antolatu, ebaluatu eta hedatzea; proiektu pilotu erabat berritzaileak bultzatzea; eta, hizkuntzen ingeniariatzari lotutako teknologietako trebakuntza sustatzea.

Euskararen Berri-papera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

- 1 • HABENet
- 2 • Jon Patrick, euskalari australiarra
• Laburrak: Xabierko Frantzisko Ez Dok Amairu
- 3 • Irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina
- 4 • Hizkuntzaren Industria eta Lengoaiaren Ingeniaritza

HABENet: Euskalduntze eta Alfabetatze arloan ari direnentzako tresna indartsua

Gaur egun teknologiak eskaintzen digun aukerez baliatuz, HABEK tresna indartsua sortu nahi izan du Euskalduntze eta Alfabetatze arloan ari direnentzat: HABENET.

Helburu nagusia da han-hemenka dugun informazioa kudeatzeko bide eroso eskaintzea, HABEK bera eta euskaltegien arteko harremanen eta jardunerako hainbat zerbitzu eta azpi-egitura telematiko garatu eta ezarri nahi ditu, euskararen irakaskuntzaren kalitatea zaindu eta hobetzeko.

HABENET bi sarek osatzen dute. Bata, kanpora begirakoa da, eta edonork erabil dezake Internet bidez. Bestea, Intranet sare bat da, euskaltegieta-ko eta HABEko langileentzat, batez ere.

Kanporako web-ean, HABERi eta euskaltegiei buruzko informazioa eta HABEK eskaintzen dituen zenbait zerbitzu eskura ditu edozein hiritarrek, esate baterako: matrikulazioari buruzko informazioa, erreserba eta aurrematrikularako sarbidea, EGA-rako matrikula eta emaitzeta iristeko bidea, euskaltegieta-ko jardueraren indikatzaileak, HABERen argitalpenak, liburutegirako sarbidea, didaktika-zerbitzua, eta abar. Horiekin batera, HABERen produktuak erosteko aukera, eta HABENET-i berari buruzko informazio eta euskarri tekniko-a ahanzi gabe.

Beste sareak Intranet baten itxura du. Oso desberdina da aurrekoaren eta honen erabilera. Honetan sei atal nagusi ditugu:

- Harremanak: gune honek HABEko langileen, euskaltegien eta euskaltegieta-ko langileen arteko harremanak bideratzen ditu.
- Administrazioa: euskaltegien kudeaketa administrazioa errazteko eta hobetzeko.
- Boletinak: EAEko edozein boletinetarako sarrera.
- Prestakuntza: irakasleen prestakuntzarako materiala aurki daiteke, HABEK argitaratzen dituen gain (Hizpide, Itzulpen Saila), handik edo hemendik bildutakoa eta irakasleen prestakuntzarako interesgarri izan daitekeena. Ikastaroen berri eman eta matrikula bideratzeko aukera ere eskaintzen da gune honetan. Gainera, lan-poltsan bere burua eskaini edo euskaltegirako langileren bat behar izanez gero, aukera izango da hemen.
- Fototeka eta Materiala: lehenengoan, HABERen argazki-artxiboko edozein argazki aurkitu ahal izango da bilaketa-sistema erraz baten bidez. Bigarrean, material didaktikoren berri ematen da.

HABENET ez dago bukatua eta aurrera begira bi erronka nagusi izango ditu.


HABENETen zabalkundea: Euskalduntzen eta Alfabetatzen ari direnekin implantazio-lana burutzea da lehena. Horretarako baliabide informatikoen diagnosis egitea, hobetzeko proposamena eta laguntza eskaintzea, eta erabiltzeko oinarriko formazioa bideratzea dira egin beharrekoak.

HABENETen garapena: euskara autoikaskuntzaren bidez ikasteko aplikazioak garatzea, aldizkaria sarean jartzea, euskaltegi-sare desberdinekin eskaintako material didaktikoa biltzea, eta irakasleak etengabe trebatzeko moduluak urrutitik eskaintzea dira eginkizun atal honetan.



AFEGALURTEKARIA

laburrak



XABIERKO FRANTZISKO

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia elkarlanean ari izan dira "Xabierko Frantzisko. Erresuma Zaharreko jesuita euskalduna" izeneko liburua argitaratzeko.

Iñigo Indart irakasleak burutu du lana eta, bertan, zehaztasun handiz landu eta azaldu ditu agiri eta dokumentuak, familiaren historia, onomastika, toponimia eta genealogia; euskararekiko, hau da, bere ama-hizkuntzarekiko eta ikasi zituen beste hizkuntzekiko harremanak, bai eta bere bokazio erlijiosoa eta misioloaria ere.

Mikel Atxaga kazetari eta idazleak liburuaren hitzaurrean idatzi duenez, "agian, Xabierko Frantzisko da mundu osoan euskaldunik ezagunena eta maitatuena. Euskarari muzinik egin gabe tokian tokiko hizkuntzak ikasten eta ikastarazten saiatu zen. Eta lehen Euskara Eguna, mundu zabalean, 1949an antolatatu zenean, abenduaren hirua, Xabierko Frantzisko sainduaren eguna, aukeratu zen".

EZ DOK AMAIRU



Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina jaso dute Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta Artze anaiek. Unibertsitateak Ez Dok Amairu taldeko lagunek egundaino burutu izan duten lana saritu nahi izan du.


Ez Dok Amairu taldea 1965ean sortu zen, euskal tradizioa berreskuratu eta adierazpide artistiko berriei sarrera egiteko. Mugimenduak, esate baterako, musika, pintura, eskultura eta antzerkia ere landu zituen.

Mikel Laboa izan zen Ez Dok Amairu abiarazteko asmoa Bartzelonatik ekarri zuena. Joxean eta Jexux Artze anaiek txalapartan saiatu ziren eta, Benito Lertxundik Iparraldeari kantatu zion, bai eta Nafarroa eta Bizkaiari ere.

Pertsonaia

JON PATRICK Euskalari australiarra

Australiako Sydneyko Unibertsitateko irakasle da Jon Patrick. Informatika departamenduan egiten du lan eta UPV-EHuko hainbat irakasleekin ere ari da lanean.



Hamar urte dira Jon Patrick irakaslea Euskal Herrira lehenbiziko aldiz heldu zenetik. Gure artean egin izan dituen egonaldietan beti eskaini izan dio denbora zenbait euskara ikasteari.

BERRIPAPERARI adierazi dionez, "nire kalkuluen arabera, hamabi bat hilabete emango nituen, denera, euskaraz ikasten. Lazkaon, Kortezubin eta Zornotzako Aurten Bai euskalegian ikasi dut, eta zazpigarren urratsean ari naiz".

Gaur egun euskararen gramatika ari da lantzen, ingelesez. 400 orrialde ditu, ia-ia bukatu dago, eta unibertsitateko lehen hiru urteetan ari diren ingelesdunei zuzendurik dago. Liburu honek Ilari Zubiriren gramatika du oinarri, nahiz eta Jon Patrickek egokitu egin duen bere esperientziaren arabera, gaztelaniarik batere jakin gabe.

Irakasle australiarra, gainera, CD-ROM bat ere ari da lantzen, arestian aipatu gramatika eta euskara-ingeles hiztegia bilduko lituzkeena. Horretarako, Mikel Morris irakaslearekin harremanetan da. CD-ROM itxurako hiztegiak, gainera, euskararen hotsak ere bilduko lituzke, ahoskera argiko zenbait hiztunen grabazioen bidez.

Linguistika Historikoak, bestalde, informatika hizkuntzalaritzari aplikatzeko bidea eskaini dio Jon Patricki eta, homegatik, hainbat harreman du UPV-EHUKO irakasle Joseba Lakarrarekin, eta Illinois-eko Unibertsitateko Jose Ignazio Hualderekin. Gainera, hamar urte da irakasle australiarra Donostiako Informatika Fakultateko IXA Taldeko bazkide denetik, eta bertako irakasle Xabier Arregi eta Xabier Artolarekin ere lan egin izan du, euskararen jatorrizko silababakarren bila.

Aurtengo Joko Olinpikoak Sydneyn egingo direla eta, Euskaldunon Egunkariarekin kolaboratzekotan da Jon Patrick, artikulua idatziz zein aipatu egunkariak Australiara bidaliko dituen berriemaile bereziei laguntza eskainiz.

“Lau Liburu Helburu”, umeen artean irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak “Lau Liburu Helburu” kanpaina prestatu du, umeak literaturara hurbilarazteko. Azken finean, haurrak liburuen mundura erakarri eta bertan bete-betean murgilaraztea da kanpaina honen helburu nagusia. Jarduera horren zereginik behinena Euskal Herriko umeen eta haientzat euskaraz idatzitako liburuen arteko lotura sendotzea da, era ludikoan.

Helburu horiek lortzeko, ipuinak bitarteko ezin hobeak dira, bai etxean bai eskolan, umeen artean irakurzaletasuna bultzatzeko. Horretarako, haur literaturan oso ezagunak diren lau idazlek eta lau ilustratzailek lau ipuin prestatu dituzte, berariaz, Lau Liburu Helburu kanpainarako: *Amona, zure Iholdi*, Mariasun Landaren testua eta Elena Odriozolaren ilustrazioak; *Aitonaren lora*, Jesus Mari Olaizola “Txiliku”-k idatzia, Jokin Mitxelena-ren ilustrazioak dituena; *Titanick*, Patxi Zubizarretarena, Iñaki Martiarena “Mattin”-en ilustrazioduna; eta *Ttolo maitea*, Juan Kruz Igerabiderena, Belen Lucasek ilustratu duena.

“Lau Liburu Helburu” kanpaina, Lehen Hezkuntzako bigarren eta

hirugarren zikloetako ikasleei dago bideraturik (8-11 urte bitartekoak). Ipuinak eskoletan banatuko dira eta beraiekin batera irakaslearen gida prestatu da.

Ipuin bakoitzetik 16.000 ale argitaratu dira, denera 64.000 ale, 60.000 ikasleren artean, zuzenean banatzeko. Eskoletara igorriko diren ipuinez gain, udal liburutegietara bidaliko dira eta beste multzo bat Donostiako Haur Literatura Zentrura igorriko da. Azkenik Haur Literaturarekin zer ikusia duten elkarte (Galtzagorri) eta irakasle eskoletara bidaliko dira.

Bestalde, euskarazko irakurzaletasuna sustatu eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian finkatutako neurriak garatzearren, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, hiru urterako kanpaina ibiltaria aurkeztuko du aurki. Kanpaina hori 12tik 16 urtera bitarteko haur eta gazteentzat izango da, bai eta euren gurasoentzat eta ikas-tetxeetako nahiz liburutegietako arduradun eta irakasleentzat ere.

